Lenendik eta behin, hautagaien eguneroko eskakizun zerrendak ageriko dira.

“Xehetasunak ikusi” sakatzerakoan, eskakizun guztien zerrenda ikusi ditzakegu. (Ezeztatua izan bada, gorritz ikusi ahal izango dugu, irudian ikusten den bezala).

“Esleipena ikusi” botoian klik egiten badugu, esleipenaren xehetasunak ikusi ditzazkegu.

Hurrengo pantailan honako informazioa dago ikusgai:

- Hautagaiak: Izen abizenen hasierako hizkiak eta NAN zenbakia ezkatutua.
- Esleipenaren zerrendako hautagaiaren egoera.
- Hautagaiak parte hartzen duen zerrenda.
- Esleipen zerrendan hautagaien ordena.

Hortaz gainera, xehetasunean, mapa bat kontsultatzea posible da, ikastetxearen kokapena erakutsiz. (“Mapa ikusi” aukera)

### Esleipenaren xehetasuna EPRI - PRI (999999) [Nola egiten da esleipena?](#)

Jantzen 14/10/1990 12:39:56 egunean egindako CDP XXXXXXXX kasurako 999999 plaza-ko **borondatezko esleipena** (jen xehetasuna erakusten du [Mapa erakutsi](#))



---

## 5 Lan egoera

Orain, lan egoerari buruzko informazioa azalduko dugu, eta eurei buruzko funtzionaltasunak Ordeztagune atarian.

---

### 5.1 Lan egoerari buruzko informazioa

Langile hautagaiak beren lan egoerari buruzko zenbait izapide egin ahal izango dituzte ataritik, irakasle zein hezitzaile kolektibokoak izan. Alde horretatik, kontuan izan behar da kolektibo bakoitzak bere berezitasunak dituela:

- Irakasle kolektiboetako hautagaien lan egoera bakarra da maila/ikasgai guztientzako.
- Hezitzaileen lan egoera bereiztua dago irakasleen kolektibotik. Halaber, egoera hau ez da orokorra maila osorako, eta espezialitate bakoitzak bere egoera bereiztua izan dezake, eta ezberdina izan daiteke kategoria mota bakoitzarako (fisioterapeuta, HLE, okupazio-terapeuta etab...).

Plazen eskabideei begira, hautagai batek baldintzak betetzen dituelarik, "lan egiteko moduan" agertu behar da esleipenetan parte hartu ahal izateko.

- Irakasle kolektiboko hautagai bat, "lan egiteko moduan" agertzen bada, irakasle lanpostuetan parte hartu ahal izango du
- Hezitzaile kolektiboko hautagai bat, "lan egiteko moduan" agertzen bada, hezitzaile lanpostuetan parte hartu ahal izango du
- Hautagai bat, bi kolektiboetan badihardu, aurreko arauak beteko dira. (Ez dago inongo arazorik edo interferentzirarik bata eta bestearen artean, ez eta arlo bereko kategorien artean).

Adibidez, hezkuntza-laguntzako espezialistaren espezialitatean "lanpetuta/okupatuta" dagoen pertsona batek irakasle-postuak hauta ditzake, baldin eta irakaskuntza-zerrendetan badago eta kolektibo horretan "lan egiteko moduan" egoeran badago.

Lanpostu esleipenei dagokiona:

- Hautagai bat lanpostu bat baino ezin dezake eskuratu, kolektibo gehiagotan "lan egiteko moduan" agertu arren.
- "Lanpetuta/Okupatuta" moduan agertzen den hautagai batek, ezin du inolaz ere "derrigorrezko esleipen" bat jaso.

Posible diren lan egoerak honako hauek dira:

- "Lanpetuta/okupatuta"
- "Lan egiteko moduan"
- "Ez aurkitua"
- "Justifikatutako uko egitea"
- "Justifikatu gabeko uko egitea"
- Baja
- Espezifikatu gabe (Irakasleak) / Kurtso osoko uko egitea (Hezitzaileak)

---

### 5.2 Lan egoeraren historikoa

"Nire datuak" arloan → "Plazen hautaketaren informazioa" → "Lan egoeraren historikoa", hautagaiak bere eskakizunen historiala kontsultatu dezake. ( hezitzaile zein irakasle moduan egonda).

Plazak hautatzeko informazioa

Datu pertsonalak

(r)en datu pertsonalak **NOMBREE APELLIDO\_1 APELLIDO\_2** (a)rekin NAN **00000000H**

**Irakasle-plazak hautatzeko informazioa**

Sisteman erregistratuta dagoen egoera **LAN EGITEKO MODUAN** da

[Lan egoeraren historikoa](#)

Zure lan egoera aldatu ahal izango duzu 09:30-(e)tik 13:00-(e)tara

Nire helbidetik 50 km baino gehiagoko dauden indarrezko lanpostuetan parte hartu nahiko nuke

**Hezkuntza bereziko plazak hautatzeko informazioa**

**FISIOTER.EM.T.** sisteman erregistratutako lan-egoera **LAN EGITEKO MODUAN** da.

[Lan egoeraren historikoa](#)

Zure lan egoera aldatu ahal izango duzu 09:30-(e)tik 13:00-(e)tara

**TRANSK.-MATERIA.EGOK** sisteman erregistratutako lan-egoera **LANEAN** da.

[Lan egoeraren historikoa](#)

Zure lan egoera aldatu ahal izango duzu 09:30-(e)tik 13:00-(e)tara

**GIZARTE LAGUN.EM.T.** sisteman erregistratutako lan-egoera **LANEAN** da.

[Lan egoeraren historikoa](#)

Zure lan egoera aldatu ahal izango duzu 09:30-(e)tik 13:00-(e)tara

Nire helbidetik 50 km baino gehiagoko dauden indarrezko lanpostuetan parte hartu nahiko nuke

Gorde

Dagokion botoian klik egin "lan egoeraren historikoa" multzo bakoitzaren egoera bistaratzeko da.

**Lan egoeraren historikoa**

Data	Lehenengo egoera	Egoera berria	Nor	Información del curso académico
2022-04-27 12:22	Lanean / Ocupado	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:22	Lanean / Ocupado	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:18	Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:18	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:18	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:18	Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:18	Lanean / Ocupado	Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:18	Lanean / Ocupado	Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:15	Lanean / Ocupado	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:15	Lanean / Ocupado	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:11	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:11	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Justifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-27 12:11	Lanean / Ocupado	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-22 13:13	Lanean / Ocupado	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-22 15:13	Lanean / Ocupado	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-22 14:53	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-22 14:53	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lanean / Ocupado	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-22 14:51	Lanean / Ocupado	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lurralde Ordezkaritza	21/22
2022-04-22 14:51	Lanean / Ocupado	Lan Egiteko Moduan / Disponible	Lurralde Ordezkaritza	21/22

1. orria, 0 etik

## 5.3 Lan egoera aldatzea

Hurrena, Ordezka gunea ataritik lan egoeraren inguruan egin daitezkeen tramiteak erakusten dira. Hurrengo taulan ikusten den moduan, hasierako lan-egoeraren arabera, sistemak aukera emango du



lan-egoeraren aldaketa zuzenean aldatzeko, edo ordezkartzari aldaketa eskaera elektronikoki bidaltzeko.

Hasierako lan egoera	Aldaketa egiteko aukerak
Lanpetuta	"Lan egiteko moduan" lan egoerara aldagarria "Justifikatu gabeko uko egitea" lan egoerara aldagarria
Lan egiteko moduan	"Justifikatu gabeko uko egitea" lan egoerara aldagarria
Ez aurkitua	"Justifikatu gabeko uko egitea" lan egoerara aldagarria
Justifikatutako uko egitea	"Lan egiteko moduan" delegaritzak telemakikoki aldatzeko aukera
Baja	-
Justifikatu gabe uko egite	"Justifikatutako uko egitea" delegaritzak telemakikoki aldatzeko aukera [*] .
Ezarri gabe / Denbora osoko uko egitea	-

[\*] Hautagaiak eskuragarri izango ditu hurrengoak:

- Irakasleek 10 lan egun balioudun izango dituzte dokumentazioa bidaltzeko eta euren egoera justifikatu ahal izateko.
- Hezitzaileek 5 lan egun balioudun izango dituzte dokumentazioa bidaltzeko eta euren egoera justifikatu ahal izateko.

**Sistemak lan-egoera aldaketak ahalbidetzen ditu 9:30etik 13:00etara bitartean.** Pertsonak bere lan-egoera aldatzen badu ordu-tarte horretan "lanegiteko moduan" egoerara, egun horretan bertan parte hartu ahal izango du plazen aukeraketan. Aldaketa 13:00etatik aurrera eskatu nahi baduzu, zure ordezkartzari eskatu behar diozu aldaketa, eta hurrengo egunean parte hartu ahal izango duzu plazen aukeraketan.

Prozedura posible hauek irakasle kolektiboari zein hezkuntza bereziko kolektiboari dagozkio. Hezkuntza bereziaren kasuan, hautagaiak modu independentean kudeatu ahal izango du parte hartzen duen espezialitate bakoitzaren lan-egoera (bat baino gehiagotan parte hartuz gero).

Pertsonak bere lan-egoera modu autonomoan alda dezakeen kasuetan, honako pantaila bat agertuko da, eta bertan aldaketa baieztatu ahal izango da.

(r)en datu pertsonalak **NOMBRE APELLIDO\_1 APELLIDO\_2** (a)rekin NAN **00000000H**

Irakasle-plazak hautatzeko informazioa

 Sisteman erregistratuta dagoen egoera **LANEAN** da [Lan egoeraren historikoa](#)  
 Bai, nire lan-egoera aldatu nahi dut: Lan-egoera (\*)  
 LAN EGITEKO MODUAN

 Nire helbidetik 50 km baino gehiagoko dauden indarrezko lanpostuetan parte hartu nahiko nuke  Bai

Gorde

Copyright 2022 ©

*Euskadi, auzolana, bien común*


Ondorengo ataletan lan-egoeraren aldaketa elektronikoki delegaritzara eskatzeko, jarraitu beharreko pausoak zehazten dira («justifikatutako uko egitea» tik «lan egiteko modua»ra, eta «Justifikaziorik gabeko uko egitea» tik «justifikatutako uko egitea»ra).

## 5.4 Justifikatu gabeko uko egitea: zelan justifikatu uko egitea

Ataritik, «Justifikaziorik gabeko uko egitea» egoeran dagoen pertsonak uko egitearen justifikazio-eskaera bidali ahal izango du ordezkariatzara, dagokion dokumentazioa erantsiz. Horretarako, pertsona identifikatzen denean sistemak bere lan-egoera "Justifikaziorik gabeko uko egitea" dela hautematen badu, aukera hori zuzenean erakutsiko dio datu pertsonalen orrian.

 (r)en datu pertsonalak **NOMBRE APELLIDO\_1 APELLIDO\_2** (a)rekin NAN **00000000H**

Irakasle-plazak hautatzeko informazioa

 Sisteman erregistratuta dagoen egoera **JUSTIFIKATU GABEKO UKO EGITEA** da [Uko egitea justifikatu](#) [Lan egoeraren historikoa](#)


 Nire helbidetik 50 km baino gehiagoko dauden indarrezko lanpostuetan parte hartu nahiko nuke  Bai

Gorde


Copyright 2022 ©

*Euskadi, auzolana, bien común*


Uko egitearen justifikazio-eskaera dokumentazioa bidaltzeko, sistemak dokumentazioa, zein probintziari erantsi behar dion hautatzeko eskatuko dio, baita maila ere. Hautaketa horren arabera, jarraitu botoia sakatzean, leiho berri bat irekiko da bete behar duzun formularioarekin eta dokumentazioa erantsi. Inprimaki honek elektronikoki erregistratuko du informazio hori jaso izana. Horrez gain, jakinarazpen bat bidaliko die bai informazio horren kudeatzaileei, bai eskaera egin duenari.



Dokumentazioa bidalitakoan, “Dokumentazioa erantsi” botoia “Dokumentazioa kontsultatu” botoia aldatuko da, horrela bidalitako dokumentazioa kontsultatu ahal izateko. Eskerak ez du inola ere kontuan hartuko pertsonak beste bide batzuetatik bidali ahal izan duen dokumentazioa.



## **5.5 Justifikatutako uko egitea: Lan egiteko modura aldatzea eskatu**

Ataritik posible izango da, “**Justifikatutako uko egoera**”n dauden pertsonentzat, dokumentazioa ordezkartzara bidaltzea lan-egoera aldatzeko “**lan egiteko moduan**” egoeran agertzeko.

(r)en datu pertsonalak **NOMBRE APELLIDO\_1 APELLIDO\_2** (a)rekin NAN **00000000H**

Irakasle-plazak hautatzeko informazioa

Sisteman erregistratuta dagoen egoera **JUSTIFIKATUTAKO UKO EGITEA** da Lan egiteko egoerara aldatzeko eskatu Lan egoeraren historikoa

Nire helbidetik 50 km baino gehiagoko dauden indarrezko lanpostuetan parte hartu nahiko nuke Bai

Gorde

Copyright 2022 ©

*Euskadi, auzolana, bien común*



Dokumentazioa eransteko, sistemak dokumentazioa zein probintziari erantsi behar dion hautatzeko eskatuko dio, baita maila ere. Hautaketa horren arabera, jarraitu botoia sakatzean, leiho berri bat irekiko da bete behar duzun formularioarekin eta dokumentazioa erantsi.

## 5.6 Interesgarriak diren ordu tartekak

Ondorengo ordutegiak aplikazio berdinak dira, bai irakaskuntza kolektiboarentzat, bai hezkuntza bereziko kolektiboarentzat.

- **Eguneroko plazen eskaintza argitaratzeko eta eskaerak egiteko ordutegia:** eskaerak 13:30etik 15:30era bitartean egin daitezke.
- **Esleipenak ikusteko ordua:** esleipena Ordezlagunean ikusgai egongo da prozesua amaitutakoan, ohiko ordua 15:45ean, nahiz eta ordu hori alda daiteke eskaintako plaza-bolumenaren arabera.
- **Nire lan-egoera aldatzeko orduak:** sistemak 9:30etik 13:00etara soilik onartzen ditu lan-egoeraren aldaketak/eskaerak.

---

## 9. Ohiko zalantzak: F.A.Q's

---

### 9.1 Informazio orokorra

---

#### 9.1.1 ¿Ordezlagunea, plazak esleitzeko sistema berria ahal da?

**Bai,** Ordezlagunea, hezkuntza-zentroetako lanpostu hutsen estaldura telematikoki kudeatzeko sistema automatizatu berria da

---

#### 9.1.2 Ez dut deirik jasoko ikastetxeen plazen esleipenak esleitu zaizkidan jakiteko?

Oro har, ordezkaritzek ez dituzte (egungo) telefono deirik egingo hezkuntza-zentroetan hutsik dauden lanpostuak estaltzeko. Hauek Ordezlagunearen bitartez gauzatzen direlarik, baina salbuesenez, ordezkaritzek egin ahal izango dute.

---

#### 9.1.3 Ordezlaguneko sarbidea berdin mantenduko da?

**Bai,** erabiltzailea eta pasahitza berdinak izaten jarraituko dute. Irakasleguneko plataformarekin gainera, bateratuak egongo dira.

---

#### 9.1.4 Ze gailu/nabigatzaileekin erabil dezaket Ordezlagunea?

Ordezlagunea, ziurtagiria du eta behar bezala funtzionatu beharko luke gailu mugikorretan (**Smartphone/Tablet**) eta ordenagailu pertsonaletan, Chrome, Safari, Firefox... nabigatzaile estandarretan, eta sistema eragile ezberdinetan (Windows, Android, IOS, Macintosh, Linux, etab.)

---

## **9.2 Helbidea eta harreman datuak balioztatu**

---

### **9.2.1 Zelan balioztatu dezaket nire helbidea ?**

Ordezlaguneak aukera ematen du sistemak automatikoki "geolokalizatu" ezin izan dituen pertsonal hautagaien ohiko helbide guztiak balioztatzeke (hasi aurretik), horretarako helbide guztiak kodetzen ditu eta koordenatu geografikoak (latitudea eta longitudea) kalkulatzeko dituen ohiko helbidea, EAEko hezkuntza-zentroetakoak dagoeneko eskuragarri dauden bezala.

***Balioztatzen ez diren helbide guztietarako, Ordezlaguneak lehen aukera gisa eskatuko du (baita espazio-estalduraren kudeaketa aldi berean ere) baliozkotzeari ekitea.***

---

### **9.2.2 Aldatu dezaket nire helbidea balioztatu baino lehen ?**

**Bai,** sistemak eskatzen badit (hasierako unean) helbidea aldatzeko, egin ahal izango da, helbidea balioztatu aurretik, beti ere .

---

### **9.2.3 Helbidea aldatu dezaket behin balioztatua izan eta gero ?**

**Ez,** Sistemak automatikoki balioztatutako helbide horiek guztiak, edo Ordezlagunean sartu bezain laster balioztatuak, ezin dira Ordezlagunearen bidez aldatu, eta izangaiak aldatzea eskatu beharko du dagokion Lurralde Ordezkaritzara deituz, eta, hala badagokio, Ordezkaritzak eskatutako dokumentazio osagarria bidaliz.

---

### **9.2.4 Zergaitik da beharrezkoa helbidea balioztatzea ?**

Helbideen kodeketa eta geokopaketa beharrezkoa da, **izangaiaren ohiko helbidearen eta lanpostu hutsak estaltzeko beharrezkoak dituzten hezkuntza-zentroen arteko distantzia (errepidez) kalkulatzeko dakarten prozesuak baitaude, adibidez, ordezkapenentarako.**

Langile hautagaiek 50 km-tik gorako jardunaldi murriztuko plazak uko egiteko aukera zehaztu ezean, **sistemak distantzia hori baino gehiagotan esleitu ahal izango ditu plazak.**

Beraz, hautagaiak PLAZEN aukeraketa egitean, 50 km baino gehiagora dauden **plazakespresuki uko egin ez badiu, sistemak ulertuko du mota guztietako plazak aukeratzeko dituela.**

---

### **9.2.5 Zelan kalkulatu du atariak distantzia?**

Sistema gaur egun erabiltzen den berbera da, nahiz eta ordezkaritzetako teknikariek eskuz egin beharrean, Google Maps-ek eskaintzen dituen zerbitzuak horretarako erabiltzen diren.

---

### **9.2.6 Ze datu balioztatu edo aldatu ditzaket?**

Helbidea baliozkotzeko prozesuan eta/edo edozein unetan, edozein hautagaik bere harremanentarako telefono-zenbakiak egunera ditzake eta gutxienez telefono mugikor bat eta posta elektronikoa bat sartu beharko ditu. Biak egunero balizko esleipenaren komunikazio/jakinarazpenerako erabiliko direnak .

---

## **9.3 Eskabide/esleipenen kudeaketa prozesua**

---

### **9.3.1 Egunero argitaratuko dira ikastetxeen lanpostu hutsak bete ahal izateko?**

**Bai**, Ordezlaguneak egunero argitaratuko ditu hezkuntza-zentroetan bete beharreko lanpostu guztiak, zentroarekin eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriekin batera, hautagaiak interesgarri zaizkienak eska ditzaten.

---

### **9.3.2 Komenigarri da egunero plazen hautaketa egitea?**

**Bai**, Ordezlaguneak egunero argitaratuko ditu lanpostu huts guztiak eta derrigorrezkoa ez den arren, komenigarria da "lan egiteko moduan" dauden langileak atarira sartzea eta interesgarri diren eskaerak egitea/lehenestea. **Izan ere, sistemak hutsik dauden lanpostuak betetzen saiatuko da hautagaien langile guztiekin. Zerrendetan eta "lan egiteko moduan" daudenak, hau da, une horretan ordezkapena betetzen ez dutenak eta/edo indarrean dagoen lan-kontratua ez dutenak, eskaerarik egin duten ala ez kontuan edukita.**

---

### **9.3.3 Lan egiteko moduan banago baina ez badut eskabiderik egin, plazarik esleitu dezake sistemak?**

**Bai**, Sistemak derrigorrez esleitu diezaioke plaza bat "lan egiteko moduan" dagoen egoeran dagoen hautagaiari, nahiz eta plaza eskaerarik egin ez.

---

### **9.3.4 Zirriborro egoeran dagoen eskaera baten, plaza gehiago gehitu ditzaket?**

**Bai**, Zirriborro-egoeran dagoen eskaera (bidaltzen ez dena), edozein unetan bete daiteke, eskatzaileari interesatzen bazaio interes-aukera berriak gehituz, daudenei gehi daitezke eta eskatzaileak berrantolatzeke aukera du lehentasunak kontuan izanda.

---

### **9.3.5 Eskaera nire nahiekin bat datorrela ziurtatu behar dut bidali aurretik?**

**Bai**, funtsezkoa da ziurtatzea, eskaera behin bidalita ez baitago aldatzeko aukerarik.

---

### **9.3.6 Aldatu dezaket bidalitako eskaera?**

**Ez**, behin bidalita ez dago aldatzeko aukerarik.

---

### **9.3.7 Eskatu ditzaket 50 km baino gehiagora dauden plazak, nahiz eta eskaera orokorrean aukera horri uko egin badiot?**

**Bai**, uko egitea modu orokorrean egin badu ere, eskatzaileak hautapenean sartzen badu (zehazki) lanaldi murriztuko lanpostu bat, 50 km-tik gorakoa, aukeraketa baliozkoa izango da.

---

### 9.3.8 50 km baino gehiagoko interesgarria den aukera gaitzen/desgaitzen badut, aukerak bere horretan dirau, aldaketa berri bat egin arte?

**Bai,** Hautagaiak 50 km baino gehiagora dauden plazak onartzeko aukera markatzen/desmarkatzen badu, sistemak hautapena mantenduko du hautagaiak aukera aldatu (gaitu/desgaitu) arte.

---

### 9.3.9 Zein ordutan egin dezaket eskabidea?

Interesgarriak diren ordu tarteak sailean ikusi ditzazkezu eskaeren ordutegiak (5.6 atala)

---

### 9.3.10 Zer gertatuko litzake zirriborro egoeran bidaltzen badut eskaria?

Eskaera ez da prozesuan sartuko eta beraz ez du eraginik eukiko, sisteman gordeta geratu arren.

---

### 9.3.11 Zer gertatuko litzake ordu tarte eta gero, bidaliko banu eskaera?

Kasu honetan ez luke prozesuan parte hartuko, ezin izango bait litzateke bidali eskaria eta beraz, ez litzake onartua izango. Ordutegia garrantzia duela kontuan hartu.

---

### 9.3.12 Zer ordu tartean egin dezaket eskaera?

Eskaeren ordu tartearen jakinean egoteko, 5.6 interesgarriak diren ordu tarteak, atalari so egin (31. Orrialdean).

---

### 9.3.13 Egunero kontsultatu behar ditut esleipenak Ordezkgunean?

**Bai,** Hautagaia zerrendetan "lan egiteko moduan" egoeran egonez gero, sisteman sartu beharko da egunero, **egunean eskainitako plazaren ordezkapena betetzeko esleipenik egin den egiaztatzeko.**

---

### 9.3.14 Oharrik jasoko ahal dut plazarik esleitzen bazait?

**Bai,** Hautagaiari plaza bat esleitzen bazaio, posta elektronikoz eta SMS bidez jasoko du horren berri. **Baina kontuan izan behar da jakinarazpena ez jasotzeak, ez duela salbuesten hautagaia Ordezkgunean sartu eta egiaztatzetik. Plaza esleitu bazaio eta delegaritzaz kanpoko arrazoiengatik berandu oharra jasotzeak ez du hautagaia salbuesten.**

---

### 9.3.15 Zer gerta daiteke esleitutako plazan ez banaiz aurkezten?

Hautagaia esleitutako plazan ez bada aurkezten, zerrendetatik kanpo geratu daiteke, araudiak dioenari kasu eginez.



---

### **9.3.16 Zergaitik da garrantzitsua edozein lanegin ezinen aurrean, delegaritzara abisatzea?**

Garrantzitsua da ordezkapen-zerrendetan dagoen edozein pertsonak dagokion ordezkaritzari aldeztu aurretik eta gertatu bezain laster jakinaraztea: abian den ordezkapen batera (lan-kontratua, gaixotasuna...) ezin bagara aurkeztu. Horrela ez zaitu kontuan hartuko eguneroko esleipenerako lan egiteko moduan dauden pertsona gisa.

---

### **9.3.17 HLE kategorian lanean banago, irakasleen kolektiboko plazak aukeratu ditzaket?**

**Bai,** irakasleen zerrendetan "lan egiteko moduan" bazaude, plaza bat eska dezakezu irakasle gisa. Dena den, Saileko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kategorian 3 urteko zerbitzua egiaztatuta ez baduzu ezar litekeen zigorrari buruz informatu beharko zara. Era berean, HLE kategorian lanean bazaude, Heziketa Bereziko gainontzeko kategorietako plazak eskatu ahal izango dituzu "lan egiteko moduan" bazaude kategorian horietan. Hala ere, kasu horretan HLEko zerrendetatik kanporatua izango zinateke beste plaza horren esleipendun bazara.

---

### **9.3.18 HLE kategorian lanean banago, eta irakasle plaza bat esleitzen bazait, zer egin beharko nuke?**

Esleitu zaizun lanpostuan aurkeztu beharko zinateke hurrengo egunean, lanean ari zaren ikastetxean HLE ko ez zarela lanpostura aurkeztuko abisatuz.

---

### **9.3.19 Adibidez HLE kategorian lanean banago, irakasle kolektiboan nahitaezko plaza bat esleitu ahal didate?**

Ez, kolektibo batean jada lanean bazaude, ez zaizu plazarik esleitu nahitaez. "Lanpetuta/okupatuta" egonda, zuk zeuk borondatez aukeratutako plazak esleitu ahal zaizkizu.

---

## 10 Eranskina

---

### 10.1 Ordezlagunean parte hartu eta esleipenen prozesua

"Lan egiteko moduan" egoeran dauden langileek eguneroko plazen eskaintzan borondatez parte hartzea aukeratu dezakete edo ez, Ordezlagunea atarian eskaerak eginez.

Langile hautagaiak eskabide-atarian ikusiko dituzten lanpostuak, eta, beraz, borondatez eskatu ahal izango dituztenak, beren profilaren konfigurazioaren arabera sar daitezkeen lanpostuak soilik izango dira.

Borondatez parte hartu ez duten izangaiek, baita parte hartu dutenek ere baina esleitu ez zaienei, nahitaez esleitu ahal izango zaie plaza, kasu hauetan izan ezik:

- Plazak ezaugarri bereziak baditu, izan ere, plaza horiek borondatezko eskabideen bidez soilik bete daitezke
- Lanpostua lanaldi murriztuko lanpostua bada, ikastetxea hautagaiaren etxetik 50 kilometro baino gehiagora badago, eta pertsonak bere lehentasunetan adierazi badu ez duela lanaldi murriztuko lanpostuak 50 kilometro baino gehiagora bete nahi.
- Hautagaia, esleipena emateko unean, bere laneko edozein egoeratan (irakasle edo hezitzaile izan) lanean agertzea.

Esleipen prozesua bi zatitan banatzen da:

1. **Borondatezko esleipena:** Sistemak hautagaiak erabakitako plazak esleituko ditu, hauen artean, hobeen kokatuta daudenak kontuan hartuz.
2. **Derrigorrezko esleipena:** Sistemak borondatez esleitu ez diren plazak nahitaez esleitzen saiatuko da (bai eskatzailerik ez dutelako, bai aurreko prozesuan esleitu ezin izan direlako), beren ezaugarri bereziengatik indarrez esleitu ezin direnak alde batera utzita. Plazak, borondatez eskatu gabe, esleipen-zerrendan postu baxuagoan dauden izangaiei emango zaizkie, beti ere hautagaiak adierazitako distantzia lehentasuna errespetatuz, plaza egun murriztua bada. Irakasleen eta hezitzaileen kolektiboan aldi berean dauden pertsonen kasuan, lehentasun handiagoa emango zaie hezkuntza bereziko lanpostuei (hezitzaileak), irakasleei baino.

Pertsona bati eguneroko eskaintzan plaza bat bakarrik eman ahal izango zaio, aldi berean irakasle eta hezitzaileen kolektibokoa den arren, edo hezitzaileen kolektiboko hainbat espezializatetako bada.

Hezkuntza Saileko irakaskuntza eta/edo hezkuntza bereziko zerrendetan "lan egiteko moduan" egoeran dauden izangai guztiek egunero sartu beharko dute sistemara, plazen baten ordezkapena betetzeko esleitu zaien egiaztatzeko.

## **IRAKASKUNTZA ESLEIPENEN ZERRENDA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK**

Hautagai baten posizioa zerrenden arteko irizpide hauen arabera izango da, eta beti ere izangaiak espezialitate-baldintza betetzen duela kontuan hartuta:

**1. Berbaremazioko zerrenda orokorra (A)** rteko birkalifikazio-prozesuko hautagaiak osatua, puntuazioaren arabera ordenatuta.

**2. Eskaintza publikoko (OPE) zerrenda bereiztua (B)** espezialitateko hautapen-prozesuetako probak, hautatu gabe, gainditu dituzten izangaiek osatua. Pertsona hauek Ordezkgunean parte hartuko dute plazarik gabe onartutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera (horretarako baimendutako berariazko deialdiaren ondoren), hautaketa-prozesuan lortutako emaitzaren arabera ordenatuta eta zerrenda orokorrean sartuko dira.

3. **Ezohiko zerrenden irekiera orokorra (A1, A2...)**, Profil linguistikoko baldintzak eta, hala badagokio, Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoa betetzen dituzten hautagaiak osatua. Pertsona hauek dagokien irekierara onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren hartzen dute parte, abizen eta izen-abizenen arabera ordenatuta alfabetikoki, urtero ateratzen den letratik hasita.

4. **Behin betiko zerrendetan aurkeztutako eskaerak (A4, A5...)** Eskaera onartzen duten pertsonak parte hartu ahal izango dute, hilabete bat igaro eta gero, eskaeraren data eta orduaren arabera ordenatuta.

5. **Berbaremazioko zerrenda irekiak PL barik (C)** gainontzeko baldintzak Beteta ere, hizkuntza-profilik ez duten hautagaiak osatua, puntuazioaren arabera ordenatuta.

## **EZOHIKO IRAKASLE ZERRENDAK**

Heziketa Pedagogiko eta Didaktikoko masterra (D eta E) ez duten hautagaiak osatutako zerrenda bereziak ez dira Ordezkgunea esleitzeko prozesuan sartzen, nahiz eta horietan sartzen direnei telefonoz deitu, eta salbuespenez, eskaintzeko. Ordezkapenak, goian aipatutako zerrendetan hautagairik ez balego egingo lirateke.

## **HEZITZAILEEN ANTOLAKUNTZARAKO IRIZPIDEAK**

Hasiera batean, eguneroko eskaintzaren kudeaketan sartuko diren zerrendak hauek izango dira:

- F zerrenda: Hezkuntza Bereziko berrazterketa zerrenda.
- F1 zerrenda: 2021eko martxotik 2021/08/31ra arte zerrenda irekiak mantenduz, zerrendetan izena eman duten Hezkuntza Bereziko langileak.
- F2 zerrenda: 2021eko irailetik aurrera zerrenda irekiak mantenduz, zerrendetan izena eman duten Hezkuntza Bereziko langileak.
- G zerrenda: profilaren betekizunik gabeko aparteko irekiera (zerrenden indarraldia: 2022/08/31).

Zerrenden nagusitasuna beste zerrendekiko:

- Borondatezko esleipena: F, F1, F2, G.
- Derrigorrezko esleipena: Borondatezkoaren atzekoz aurrera, G, F2, F1.